

Osasun-arloko profesionalentzako on-line ikastaroak: Ikastaroaren inplementazioa (eta II)

Joseba Arbelaitz, Jokin Nazabal

2004ko abenduan egin genuen moduluen esperimentazioa, diseinatutako hiru moduluetatik birena, behintzat. Medikuntza orokorreko 1. modulua eta Pediatriako 1.arena. Talde bana izan genuen. Handik urte eta erdi eskasera, 2006ko maiatza eta ekainean, berriz, moduluak merkaturatu eta guztira EAEn bost talde ibili badira ere, gurean medikuntza orokorreko talde bat aritu da. Bai esperimentazioa, bai inplementazioa, biak hartuko ditugu hemen aintzat, ikasleen ezaugarrien berri eta esperientzia didaktikoarena ematekoan.

Ikasleen tipologia

Guztira gurean 35 ikasle aritu dira esperimentazioa ere kontuan hartuta. 20 ikasle esperimentazio-aldian, 10na laguneko bi talde, bata pediatriakoa eta medikuntza orokorrekoa bestea. Eta 15 ikasle ikastaro-aldian, aurrez aurreko pediatriakoak barne. Izan ere, gurean 2006ko udaberriko aurrez aurreko taldean, medikuntza orokorreko eta pediatriako ikasleak elkarrekin aritu dira, ikasleak biltzeko gertutasun-irizpideari jarraikiz. Hau da, ikasleak aukera izan du aurrez aurreko eskolak etxetik edo lane-tik gertuen zuen euskaltegian hartzeko, medikuntza orokorrekoa edo pediatriakoa zen kontuan hartu gabe.

Bada, ikastarootan parte hartu duen ikaslearen argazkia lau zertzeladatan egin beharko bagenu, hona hemen:

40 bat urteko emakumezkoa, 2. hizkuntz eskakizuna baduena, gaitxoekin euskaraz egin eta nahikoa txukun moldatzen dena, oso eza-gutza informatikoa oinarrizkoaren jabe dena eta *On-line* ikastarorik sekula egin ez duena.

Jarraian argazki hori xehatuko dugu. 35 ikasle horietatik 33 dira emakumezkoak eta 2 gizonezkoak. 19 medikuak eta 16 erizainak. 25ek 2HE dute eta 10ek 3HE. 2006ko udaberriko aurrez aurreko taldean, 7 lagun medikuntza orokorrekoak eta 6 pediatriakoak.

Gehien-gehienek euskaraz egiten dute kontsulta-gelan, nahikoa ingurune euskaldunean egiten dute lan gurekin aritu direnek, bakarren batzuek salbu, eta horiek ere badute paziente euskaldunik. Gipuzkoako herri txiki, ertain eta handietako osasun-zentroetan egiten dute lan, besteak beste: Alegia, Elgoibar, Ibarra, Zarautz, Irura, Azpeitia, Legorreta, Hondarribia, Donostia, Errenteria, Irungo osasun-zentroan...

Ongi moldatzen dira, baina euskaraz kontsulta-gelan konfiantzaz eta erraztasunez aritzeko eman dute izena ikastaroan. Batez ere, medikuntzaren gaineko lexikoa ikasi eta erraztasun handiagoarekin mintzatu ahal izateko, gaixoekin mintzatu ahal izateko. Helburu horiek gutxi asko moduluenekin bat baldin badatoz ere, ikasle dezentek, batez ere, esperimentazio-aldian izen eman zuten ongi jakin gabe zer eratako ikastaroa egin behar zuten. Hala aitortu ziguten, behintzat.

Oro har, oso ezagutza informatiko oinarritzkoa dute. Batzuk moldatzen dira, badute ohitura pixka bat *word*-en lan egiteko, mezuren bat posta elektronikoaren bidez bidali eta interneten jarduteko. Beste batzuek –gutxienek–, berriz, nekez erabiltzen dute ordenagailua, kosta egiten zaie, artxiboak gorde eta karpeta batera biltzeko ere lanak izaten dituzte. Baina, horiek ere arian-arian moldatu egiten dira. Izan ere, oinarritzko ezagutzarekin nahikoa da, baina oinarritzko ezagutza hori izateak gauzak erraztu egiten dizkio hala ikasleari nola tutore-lanak egingo dituen irakasleari.

Hasiera batean ikastaroa diseinatzen aritu ginenean, 2. mailaren bueltan dabiltzan ikasleak izan genituen gogoan, 2. HE lortzeko gutxi falta duten horietakoak. Esperimentazioaren ondoren, Osakidetzak egokiago ikusi zuen ikastaroa beren euskara normalizatzeko planaren barruan trebatzen ari diren ikasleei eskaintzea. Eta, trebakuntzan, antza, 2. HE eta 3. HE ere egiaztatuak dituzten ikasleak ibiltzen dira. Guri ere, aproposagoa iruditu zitzaigun. Izan ere, gure irudipena da jadanik gutxieneko maila baten jabe izan (2HE) eta trebakuntzan ari den ikasleak etekin handiagoa aterako diola ikastaroari, 2HE lortzea helburu duenak baino.

Gure moduluetakoa edukiak estu-estu daude lotuta ikaslearen lanarekin. Eta, beraz, lehen ikastaroa Osakidetzako trebakuntzako ikasleekin egin genuen.

Egia esateko, ez dugu alde handirik sumatu esperimentazioan ibilitako ikasleen eta ondorengoan artean, ez baitago alde nabarmenik edo aipagarriarik batzuen eta besteen profilari dagokionez. Lehen egin dugun argazkian ederki islatzen dira hala batzuk nola besteak.

Esperientzia didaktikoa

Gure esperientzia didaktikoaren berri emateko honako kontzeptu haue-tan oinarrituko gara: ingurune birtuala, ikaskuntza birtualaren ezaugarriak, ikasle birtualaren autonomia, tutorearen rola eta ebaluazioa eta feedbacka. Banan-banan arakatu eta guk emandako ikastaroetako kontu aipagarrienak plazaratuko ditugu.

*Ingurune birtuala,
baliabide
informatikoak eta
oinarrizko ezagutza
informatikoa*

Ingurune birtuala ondo ezagutzeak ikaskuntza birtuala erraztu egiten duela dioenik bada. Nola ez, bada! Areago esango genuke guk, geure esperientzia oinarri: funtsezkoa da ingurune birtualean eroso antzean ibiltzea ikastaroari etekinik aterako bazaio, arrakastarik izango bada. Bestela, trakets eta ezin moldaturik ibilita arrisku handia dago ikastaroa zapuztu eta bertan behera uzteko. Gurea 30 orduko modulu mistoa da, 20 ordu sarean egiteko eta 10 aurrez aurreko eskoletan. Ikastaroa motza da, eta horrek areagotu egiten du ikasleak gunea ezagutzeko beharra.

Gure kasuan, bai esperimentazioan, bai ikastaroan, HABEren irakaslearen gunea izan da erabili dugun plataforma. Ez dugu suerte handirik izan. Izan ere, esperimentazioa hasi eta lehen bi egunetan ingurunea “erori” eta ezin izan genuen ezer egin. Ikastaroaren hasiera zen. Hortik atera kontuak ikasleak ez ezik gu ere nola ibiliko ote ginen. Ikasleak aztoratuta, jakina, ingurunean sartzen asmatu ez izana beren buruei leporatuta, edo okerrago, hasieratik bertatik On-line ikastaroari susmo txarrak hartuta. Aztoratuago gu, gure lehendabiziko On-line ikastaroa zela eta zer itxura zen hura.

Ikastaroan, berriz, hasieran behintzat ez, baina hirugarren astean, ikastaroaren erdi aldera (gaitz erdi), ia aste osoa eman genuen ikasgela birtualik gabe. Denbora luzea da hori bost asteko ikastaro batean. Hala ere, ez batean, ez bestean, ikasleek ez dute gaizki baloratu ingurune birtuala, aitzitik, nahikoa egokia iruditu zaie. Dena dela, bistakoa denez, horrelako arazoek ez diote inolako mesederik egiten ikastaroari.

Esperimentazioan ez genuen ikastaroa hasi aurretik inolako aurrez aurreko saio berezirik egin ingurune birtualaren zoko-mokoak ezagutzeko. Jakinaren gainean hartu genuen erabaki hori, proba egiteko. Beraz, ikasleak lanean hasi ziren gune birtualean alde aurretik, guk ohiko postaren bidez hasieran eta posta elektronikoen bidez ondoren, bai ingurune telematikoa, bai ikasmaterialak ezagutzeko, bidalitako argibideetan oinarrituta.

Aurrez aurreko lehen eskolaren erdia baino gehixeago eman genuen ikasleen zalantzak argitzen, ingurune telematikoa zela eta ez zela. Bitartean, jakina, ikastaroaren hasierako egunetan, batez ere, makina bat dei izan genituen, gehien-gehienak plataformaren gainekoak, bakarren batzuk ikasmaterialei buruzkoak. Ikastaroaren bukaerako ebaluazioan, dena dela, auzia planteatu egin genien ikasleei, zer nahiago ote zuten lanean hasi ondoren, saio bereziren bat ingurunearen gaineko zalantzak argitzeko ala lehendabizi argibideak eta ondoren ikastaroa. Gehienek lehena aukeratu zuten, alde txikiagatik izan bazen ere.

Lehendabiziko ikastaroa, beraz, hasi baino lehen, aurreko astean bi orduko saio bat antolatu genuen ikasgela birtualaren gorabeherak eta ikasmaterialenak azaltzeko. Ikastaroa hasi eta lehen egunetan, hala ere, telefonoa jo eta jo aritu zen. Eta aurrez aurreko lehenengo saioaren partetik handiena pasa genuen ikasleen zalantzei erantzuten eta haiek argitzen. Gezurra badirudi ere, zalantzarik ohikoena zera izaten da: zer

demontre egin behar den forora mezuarekin batera egindako jarduera erantsi eta bidaltzeko.

Ikastaro birtualen bat edo beste HABEren irakaslearen gunean egin due-nak badaki, ederki asko jakin ere, horrelako txikikeriak hasiera batean zein handi iruditzen zaizkigun. Gainera, aipatu ingurunean artxiboa eransteke urrats dezente egin behar izaten dira eta bakarren bat janez gero, huts egiten du. Beste bat ere usu samarra: nola topatu ikaslearen edo irakaslearen helbide elektronikoa haiekin harremanetan jartzeko edo bertara mezuarekin batera egindako ataza bidaltzeko.

Kontuak kontu, hemendik aurrerako ikastaroetan 0 saioa edo aurkezpe-na (gure ikasmaterialena eta ingurunearena) egingo dugu. Izan ere, bai teoriak, bai esperientziak, argi erakutsi digute ikasleak premiazkoa duela ikasgela birtualaren zirrikituz ondo jabetzea, eroso samar aritu eta ikastaroa probetxugarri irudituko bazaio. Areago gurea bezalako ikastaro motz batean. Eta areago, kontuan hartzen badugu orain arte izan ditugun ikasleen ezagutza informatikoa badaezpadako samarra dela.

Bistakoa da oinarrizko ezagutza eta baliabide informatikoak premiaz-koak dituela ikasleak, horrelako ikastaro bat egin ahal izateko. Bada, gehien-gehienek alde zuzenetik guk jarritako gutxienekoak betetzen bazituzten ere, izan da behar bezalako azpiegiturarik ez zuen ikaslerik. Esaterako, bakarren bat edo beste bazen lanean interneterako konexio-rik ez zuena eta, beraz, ikastaroari etxeko ordenagailutik bakarrik jarraitu ziezaiokeena. Bakarren batek edo bestek ere seme-alabei zor die ingurune birtualean ibiltzen eta mezuak bidaltzen asmatu izana. Beraz, horiek ezean, areagotu egiten da, jakina, ikasleak etsi eta zapuz-teko arriskua.

Ikaskuntza birtualaren ezaugarriak

Guk uste dugu –uste hori sendotu egin da esperimazioaren eta ikasta-roaren ondoren– funtsezkoa dela ikaskuntza birtualerako nahiz aurrez aurrekorako zein marko pedagogikotatik abiatzen garen, zein uste eta iri-tzi ditugun hizkuntzari eta ikaskuntzari buruz, eta horiek ondo islatuta ote dauden diseinuan, syllabus-arenean, materialenean, ingurune birtua-lean. Izan ere, ikaskuntza birtualak berezko ezaugarri batzuk baldin baditu ere, batzuetan oso planteamendu pedagogiko zaharrak ezkututzen dira informazioaren eta komunikazioaren teknologien atzean.

Ustea plazaratuta, ikaskuntza birtualaren nondik norako nagusien aban-tailak eta desabantailak (guk hala ikusten ditugunak) jarriko ditugu aurrez aurre. Ondorengo koadroan azalduko ditugu labur-labur ezaugarri horiek eta, ondoren diseinuko kontuak eta esperimazioak erakutsita-koak ere aipatuko ditugu.

Ikaskuntza Birtualaren Nondik Norakoak

<i>Ezaugarria</i>	<i>Abantaila</i>	<i>Desabantaila</i>
1 Asinkronia: ordu-tegi ezberdinak.	<ul style="list-style-type: none"> – Nork bere erritmora ikasteko aukera. Ikasleak bere ordutegia aukeratzen du. – Ikaslearen autonomia eta erantzukizuna bultzatzen dira. – Hausnarketarako denbora, komunikazioa idatzizkoa da eta. 	<ul style="list-style-type: none"> – Hala ere, neurri batean nork bere erritmora. Ikastaroak nola dauden diseinatuta, iraupen jakin bat izaten dute, hasiera data eta bukaera data. – Bat-batekotasunik ez. – Ikasle batzuek bakardatea edo segurtasun-falta nabaritzen dute.
2 Denboraren kudeaketa norberarengan izatea (autonomia).	<ul style="list-style-type: none"> – Askatasuna. – Autonomia garatzeko egokiera. 	<ul style="list-style-type: none"> – Hala ere, berez eskakizun handikoa da egiteko hori ikasleak (horretan ohiturarik ez duen ikasleak) bere gain hartu beharra. Lagundu beharko zaio, materialen diseinua eta tutorearen lana ezinbestekoak.
3 Bat-batekotasunik eza.	<ul style="list-style-type: none"> – Hausnartzeko eta gogoeta egiteko denbora. 	<ul style="list-style-type: none"> – Berehalako feedbackaren alde onik ez. Jarduera egin eta feedbacka handik 24 ordura ematen bada, bestelakoa izan beharko du.
4 Idatziz komunikatzea.	<ul style="list-style-type: none"> – Hausnartzeko eta gogoeta egiteko denbora. – Idatzian trebatzeko aukera, hala ere, hau ere ez da besterik gabe arian-arian eskuratzen, gure iritzirako. – Pribatutasuna: bestela ausartzen ez denak parte hartzeko aukera. – Irakaslea eta ikasleak eskura izateko aukera. 	<ul style="list-style-type: none"> – Ez dugu idazteko ohitura handirik eta arriskua dago ikasle batzuei oso nekeza egiteko. – Mezuak pilatu eta itotzeko arriskua. – ren ikaskuntzaz ari gara, ahozkoa bat-bateko elkarreaginean garatzen da, batez ere.
5 Tutorearen laguntza.	<ul style="list-style-type: none"> – Ikaslearen jarraipen estua egiteko aukera. – Funtsezkoa da, arrakastarik izango bada, ondo planifikatzea: helburuak, noiz, nola... Baina, oinarria du marko pedagogikoan. 	<ul style="list-style-type: none"> – Tutorearen laguntza neurri handi batean estu lotuta dago ikastaroaren kostuarekin. Zenbat eta tutoretza-saio (era guztietakoak) gehiago, orduan eta dedikazio handiagoa.
6 Lan-taldean lan egitea.	<ul style="list-style-type: none"> – Ikasleekin elkarlanean aritzeko aukera. – Besteen ekarpenetatik ikasteko aukera. – Bakarririk ari ez delako sentipena izateko aukera. 	<ul style="list-style-type: none"> – Ez zaigu iruditzen berezko ezaugarria denik, ez ikaskuntza birtualarena, ez presentzialarena. – Sozio-konstruktibismoa puri-purian dugu, baina aldarrikatze hutsetik ez da etorriko, berez, gela birtual batean, ikasleek egin beharreko jardueren zer-nolakoetatik baizik.

<i>Ezaugarria</i>	<i>Abantaila</i>	<i>Desabantaila</i>
7 Materialak sarean	– Eskuragarriago, printzipioz.	– Koska dago materialen zer-nolakoetan, zein printzipiori erantzuten dioten, marko pedagogikoa zein den, azken batean.

Asinkroniaren ezaugarri horietako batzuk ederki ikusi ahal izan ditugu. Nork bere erritmora ikastea badu ikasleak, baina neurri batean, gure ikastaroan, behinik behin. Izan ere, ikastaroa laburra da, eta ikasleak epe eta data jakin batzuk ditu jarduerak egin eta bidaltzeko. Ikastaroa eman aurretik irudipena genuen beteegi ote zegoen.

Irudipen hori baieztatu egin da. Ikasleek hala ikusarazi digute, gehien-gehienek sareko laneko oinarrizko helburuak lortzeko agindutako 20 ordu horiek baino gehiago behar izan baitituzte. Ingurune birtuala ondo ezagutzeko denbora ere behar izaten du ikasleak eta, jakina, hori ere oso kontuan izaten du. Beraz, agian aukera izan liteke 5 astetan egiten dena 6 astera ekartzea, eta seguruenik ikasleak lasaixeago ibiliko lirarteke.

Bestalde, ikasle batzuek bakardadea edo segurtasun-falta sumatzen dituzte, arazoak sortzen direnean irakaslea aurrean ez badago. Eta halaxe gertatu da gure kasuan ere. Arazo teknikoak izaten dira, gehien bat, ikaslearen ezinegona eta urduritasuna sortzen dituztenak.

Ikastaroaren hasieran, artean gune birtuala ezagutzen ez zutela, jo izan du telefonoak, batez ere. Bestela, hasierako aurrez aurreko saioetan ere, lehendabizikoan, bigarrean gutxixeago, adierazi izan dute ikasleek konfiantza-falta eta artegatasuna. Baina, arazo teknikoak alde batera utzita, irakaslearen esku dago ikaslea bakarrik ez sentitzea. Horretarako, ikastaroa itxuraz dinamizatu eta ikaslearekin etengabe egon behar du harremanetan.

Ikasle gehienek, bakarren batek edo bestek salbu, ez dute aparteko arazorik izan denbora ongi kudeatzeko. Batzuek lehentxeago, beste batzuek beranduxeago, gehien-gehienek lanak garaiz egin eta agindutako epearen barruan bidali dituzte.

Autonomia aipatzen dugunean, hala ere, denbora kudeatzea baino zerbait gehiago da gogoan duguna. Eta bere xumean –areago hain ikastaro motzean– badira zenbait jarduera propio hala diseinatuta ikaslearen autonomia ere lantzea helburu dutenak. Jarduerak bakarrik ez, ikaslearen eskura jartzen diren hainbat baliabideren xedea ere horixe baita, ikasleak ikastaroa bukatuta ere, lanean ari dela zalantzaren bat sortuz gero, kontsulta egin ahal izatea.

Glosategia (ikastunitateetako lexikoarena) eta esteka interesgarriak izenekoak, kasu. Ederki baloratu dituzte ikasleek, ikastaroan ari zirela prak-

tikoak iruditu zaizkie, adierazi dutenez. Gainera, aurrerantzean ere baliatzeke asmoa erakutsi dute.

Baina, zera azpimarratu nahi genuke. Ingurunea bera baino garrantzitsuagoa da, gure ustez, autonomia dela eta, zein paradigmataitik edaten dugun. Ikaskuntza birtualak zenbait aztura bultzatu baditzake ere, autonomia oso auzi serioa da, besterik gabe, pentsatzeko berez etorriko dela. Izan ere, oso uste zaharrak –eta agian ustelak, egungo ikuspegitik, behintzat– zabaldu eta barreiatu daitezke teknologiarik berrienarekin. Eta bagaude, batzuetan, On-line eta ikaslearen autonomia errazegi lotzen direla.

Bat-batekotasunik ez dago. Aurrez aurreko eskoletako gertutasunik ez. Dinamizazioaren bidez murriztu behar da, beraz, distantzia hori. Esaterako, ikasleak jarduera egin eta handik 24 ordu beranduenez gomendatzen da feedbacka ematea. Ikasleak premiazkoa du lagunduta sentituko bada. Irakaslea gertu sentitu behar du, ikusi egin behar du egiten ari den lanaren jarraipena egiten duela norbaitek. Eta, hortaz, irakasleak oso erne ibili behar du, ikasleari feedbacka garaiz emateko. Gure ikastaroari dagokionez, jarduera batzuetan jarraipena egitearekin nahikoa da, horrelakoetan feedback hori ia berehalakoa izan daiteke, izan ere, zenbaitetan nahikoa da jarduera egin izana eskertu eta lanean segitzera adoretzearekin. Bete batzuetan, ordea, feedback hori landuxeagoa izaten da (jardueren helburua zein den), horrelakoetan ere zenbat eta lehenago erantzun ikasleari hobe.

Ahozkoak ez bezala idatzizko komunikazioak denbora hartu eta hausnartzeko aukera ematen digu hala ikasleei nola tutoreoi. Eta aprobetxatu beharra dago aukera hori. Ikasle batzuek estimatu egiten dute, gustura aritzen dira, eskertu eta baliatu egiten dute. Beste batzuek, berriz, gutxienez, nahiago izaten dute edo faltan sumatzen dute, hobeto esanda, ahozkoaren bat-batekotasun eta gertutasuna.

Izaten da ikaslerik aurrez aurrekoetan ikaskideen aurrean uzkurto, isilik gelditu eta parte hartzen ez duena. Horrelakoek eskertu egiten dute e-postaren bidezko komunikazioak eskaintzen dien pribatutasuna, eta nahikoa parte hartze aktiboa izaten dute, bestela, behinik behin, aurrez aurrekoetan izango ez luketena.

Hala gertatu da gure ikastaroetako zenbait ikaslerekin ere, aurrez aurrekoetan parte hartze handirik izan ez duten bakarren batzuek gogotik jardun dute foroetan, edo beste batzuek baino mezu gehiago bidali izan dizkigute irakasleoi. Bestetik, mezuak pilotzeko arriskua ere badago, norberak denbora ondo kudeatu ez eta diziplinatua izan ezean, banderaxo gorriak ugaritu (irakaslearen gunea) eta ikaslea itotzekoa.

Gure irudipena da On-line lan egiteak aukera ematen digula irakasleoi, ikasleak egindako lan eta aurrerapenaren jarraipen estuagoa egiteko. Baina, horretarako, jarraipen hori planifikatu egin behar da. Eta zorrotz etsi behar zaio. Lan dezentea da irakaslearentzat, baina, era berean, idatziz erantzun beharrak berekin dakarren hausnarketak berak areagotu egiten du jarraipena bera.

Tutorearen rola

Aurrez aurreko eskoletan oinarrizkoa da irakaslearen rola, are oinarrizkoagoa oraindik ikaskuntza birtualean. Tutore-lanak egingo dituen irakasleak ikaslea bideratu behar du ikastaroan zehar, adore eman, ebaluatu eta unez une lagundu beharko dio. Hiru zutabe ditu tutorearen lanak: ikastaroa dinamizatu, ikasleei lagundu eta ebaluazio jarraitua egin.

Ikastaroa dinamizatzeko oso kontuan hartu behar dira zera hauek: ikastaroaren plangintza egin, lan egiteko modua azaldu, ikas-prozesua erraztu eta bideratu, eztabaidak eta foroetako parte hartzeak antolatu eta zuzendu eta informazioa eta baliabideak banatu. Horretarako guztirako, hainbat tresna diseinatu eta erabili ditugu gure ikastaroetan: ikastaroaren plangintza, jardueren egutegia, kudeaketa plana, mezuen agenda, ikasle- en jarraipenerako koadroa, ikaslearen eta irakaslearen liburuak...

Hala ere, ikastaroa hasi aurretik, gure ustez, premia-premiazkoa da ikastaroaren plangintza diseinatzea eta horrekin batera jardueren egutegia eta bidali beharreko mezuen agenda betetzea. Ikastaroaren plangintzan hainbat arlo azalduko dira, den-denak oinarri-oinarrizkoak: helburuak, edukiak, jarduerak, baliabideak, datak eta denboralizazioak eta ebaluazioa. Irakasleak ondo gogoan hartu behar ditu une oro eta ederki antolatuta eduki, izan ere, ikasleak ere ikastaroa hasi orduko jakin behar du zer egin behar duen, zertarako, nola, zeinekin eta noizko.

Idatzizkoa da komunikazioa, mezuen bidez gauzatzen dena eta tutorea da komunikazio hori kudeatu behar duena. Mezu argiak idatzi behar dira. Lau eratako mezuak idatzi behar izaten ditu tutoreak gure ikastaroan: ohar-taulan egin beharreko jardueren berri ematekoak, foroetan ikaslearen parte hartzea adoretzekoak, ikasleen zalantzak argitzekoak eta ikaslearen lana ebaluatzekoak.

Mezuak argiak, ikasleak erraz ulertuko dituenak eta ikaslea animatu eta motibatuko dutenak. Gainera, ikasleen zalantzei erantzuteko direnak edo feedbacka ematekoak garaiz bidali behar dira. Beranduenez ikasleak zalantza planteatu edo jarduera bidali eta handik 24 ordura. Izan ere, nola edo hala murriztu behar da espazio desberdinean aritzeak dakarren distantzia.

Ikasleak ikusi behar du uneoro baduela ondoan nor lagunduko bere ikas-prozesuan, bestela bakarrik sentituz gero, behar bezalako feedbackik jasotzen ez duelako, edo tutoreak garaiz erantzuten ez diolako, etsipena nagusitu eta arrisku handia dago ikasleak zentzu handirik ez aurkitzeko sarean egiten den lanari. Ez da harritzekoa, beraz, ikasleak bereziki ondo baloratzea tutorearen rola ikastaroak eman ondoren propio diseinatu eta ikastaroaren hainbat alderdi ebaluatzeko balorazio-orrian.

Gure ikastaroetan hiru eratako feedbacka dago: ikaslea/ikasmaterialak, ikaslea/ikaslea eta ikaslea/irakaslea.

Batzuetan, ikasleak ataza edo jarduera bat egin eta ikasmaterialetan bertan topatuko du feedbacka, propio diseinatutako zuzenketa-orrian edo irakurri beharreko testu laburrean edo transkripzioan, zergatik ez.

Zenbaitetan –gutxitan–, ordea, ikaskidea izango da feedbacka emango diona, forora bidalitako iruzkin baten bidez edo ikaslearen jardueraren

ebaluazioa egin eta ikaskideari berari bidalitako mezuaren bidez, zer ebaluatzen den.

Xedea zera da, ikaslea pixka batean ohitzea bestek egindako lanari erreparatzen eta aztertzen; hartara, bereaz ere hausnartzen ikasi eta horrek ere bere autonomia garatzen lagunduko diolako.

Eta beste batzuetan irakaslea da, nola ez, ikasleak egindako jarduera ebaluatu eta feedbacka ematen diona. Jarduera nolakoa den eta ebaluazioaren xedea zein den, feedback hori ere era batekoa edo bestekoa izango da. Esate baterako, batzuetan, idatzi labur bat izaten da ebaluatzen dena. Horrelakoetan ez da komeni egindako akats guztiak zuzentzea, lehenetsi egin behar dira. Oinarrizkoenak edo muntakoak (jardueraren zer-nolakoa gogoan) zuzenduko ditu. Baina, zuzentzeak berekin ekar dezake ikaslearentzako eginkizun txiki bat, gogoeta txiki bat edo azalpen luzeago baten lotura edo esteka, internetek eta ikaskuntza birtualak eskaintzen dizkigun aukerak baliatu beharra dago eta, bide batez, ikasleari bide berriak erakutsi, horiek ere berak hala nahi balu, baliatu ahal izango ditu-eta.

Hona hemen (.2) aipatu berri ditugun feedback mota horien erakusgarri ikasleei bidalitako batzuk:

.2:

Testua oso ongi dago idatzita, primeran ulertzen da hasieratik bukaerara arte, ideiak oso txukun daude azalduta. Hala ere, badira zenbait kontu pixka batean txukundu eta hobetu daitezkeenak. Ikusiko duzunez, azpimarratu eta zenbakia jarri diet, zuretzat erosoago izan dadin. Segidan dituzu.

NEURE LAN-ERRUTINAK

Erizaina naiz, 48 urte ditut eta 14 daramatzat Getariako osasun zentroan. Nire eguneroko errutinak ez dira asko aldatzen ezbeharreren¹ bat gertatzen ez bada. Goizeko zortzietan hasten naiz analisiak egiten eta horretan jarduten dut laborategira dena bidaltzeko prest egon arte. Jarraian, gaixo diabetiko eta hipertentso-^{en}² kontsultarekin hasten naiz. Osakidetzak ezarritako protokoloa betetzeaz gain, osasun heziketa ere ematen dut. Hurrengo betebeharra analisisen emaitzak jasotzea eta sendagileei banatzea da. Emaitzekin ezbeharreren bat sortu ezkero³, laborategira deitu eta arazoa argitu. Botikinekin hasi baino lehenago 10 minutuko atsedenditxo bat egiten dut kafea hartzeko. Botikinean sartu eta jo ta kean⁴ jarduten dut lanean hamabiterdiak⁵ arte. Maria beste erizainak⁶ arduratzen da eta berriro kronikoen kontsultari ekiten diot ordubaterdiak⁷ arte. Hurrengo lana etxez-etxe^{ko}⁸ abisuak egitea da. Hiruretan bukatzen dut eta ordurako ordenagailuan informazio guztia gorde, botikina txukundu, tresnak garbitu eta hurrengo eguneko analisisietako bolanteak prestatu. Pediatra dagoen egunetan (astelehen, asteazkena eta ostiraletan) umeen txertoak ere ipintzen ditut goizean zehar.

1 *ezbehar* da hitza. Beraz, *ezbeharren bat*.

2 *diabetiko* eta *hipertentsiodun* hala dira bi horiek euskaraz.

3 *ezkero* / *-(e)z gero*. Kontuz horren idaztarauekin. Aditzarekin doanean bereiz idatzi behar da, lehen zatia aditzari loturik. Beraz, honela: *sortuz gero*. Argibide gehiago klik egin hemen.

- 4 *jo eta ke* edo *jo eta kean* idazten da hori.
 - 5 *hamabi eta erdiak* idatzi behar da. Hona hemen orduen idaztarauak.
 - 6 *erizaina arduratzen da* eta ez *erizainak*. NOR kasua da hori eta ez NORK.
 - 7 *ordu bata eta erdiak*. Orduen idaztarauak.
 - 8 *etxez-etxe*. Marratxo hori sobran dago. Lehenengoa deklinatuta badago *etxez*, marratxorik ez, beraz: *etxez etxe*
-

Ikusten denez, ez ditugu testuko akats guztiak zuzendu. Akatsak lehenetsi egin behar dira, ikaslea zein den, nolako gabeziak dituen, edo irakasleari zeintzuk iruditzen zaizkion larrienak, jardueraren helburua zein den, edo zer aukera ematen duten ikasleak interneten bertan topatuko dituen azalpen zabalagoetara estekatzeko...

Kontuak kontu, akatsak lehenestea gomendatzen dugu, hala aholkatzen dute adituek ere, izan ere, ikasleari probetxugarriagoa gertatzen zaio horrela, etekin handiagoa ateratzen du. Bestela, den-dena zuzenduko bagenu, mesede egin beharrean kalte egingo genieke zenbait ikasleri, oso etsigarria izan daiteke-eta. Gainera, gaitasun mugatua dugula ezin dugu ahaztu, eta oso nekeza egiten zaigu akats guztiak gogoan hartzea, asko direnean. Guk zortzi aukeratu ditugu kasu honetan. Agian gehitxo irudituko zaio bakarren bati. Tira, onartzen dugu. Ikaslea zein den, bospaseiri errepararaztea nahiko izan liteke. Hala ere, zera azpimarratu nahi dugu: akatsak aukeratu egin behar ditu irakasleak, zein marko pedagogikotik abiatzen garen, hala aurrez aurreko eskoletan nola On-linean. Hobeto esanda, areago On-linean, besteak beste, komunikazioa idatzizkoa izaki, zenbait muga ere baditugulako.

Ebaluazioa

Ebaluazio jarraitua da modulu hauetan hobetsi eta lehenetsi duguna. Beraz, hasiera-hasieratik helduko dio irakasleak informazioa jaso eta arakatzeari, ikaslearen ikas-prozesua aztertu eta neurtzeko. Aurrez aurrekoetan ez bezala, On-linean, gure ikastaroetan, behintzat, idatzizkoa da komunikazioa eta posta elektronikoen bidezkoa, horrek aukera ematen digu informazio andana kudeatzeko. Baina, horretarako, funtsezkoa da, tutorearen ikuspegitik, informazio hori guztia txukun sailkatu eta egoki antolatzea. Esaterako, oso komenigarria da ikasle bakoitzeko karpeta bat ireki eta bertara ikasleak egindako jarduera guztiak biltzea. Gainera, ikasleak nolako parte hartzea izan duen eta zenbat jarduera egin dituen jakin ahal izateko, egunez egun bildu behar da informazioa horretarako propio diseinatutako koadro batean.

Hasiera-hasieratik gauzak txukun egin ezean, arriskua dago berehala informazio gehiegi pilatu eta berau aztertzea oso nekeza egiteko. Beraz, oinarri-oinarrizkoa da, gure iritzirako, ikasleak egindako jarduerak ongi antolatzea, izan ere, nola egin bestela ikaslearen jarraipena, nola eman feedback egokia, nola bideratu, azken batean, hain premiazkoa den komunikazioa? Ikus (.3) irakasleak beti eskura izango duen planoak:

.3: Ebaluazio jarraitua

Lan- -epeak	Ikastunitateak	Jarduerak	Ebaluazioa	Ebaluazioaren xedea	Feedbacka
1. astea	1. Txabusinak	1. Osasun-etxean (45') 2. Eginkizuna franko (55') 3. Zeu ere kazetari (45') 4. Aipuak aipu (55') 5. Kontsultan (50')	1.1. Norberaren aurkezpen fitxa 1.3. Neure lan-errutinak	1.1. Ikasleak ezagutzen hasi eta parte hartzea neurtu. 1.3. Idatzizko produkzioa	1.1. Ikaslea/ikaslea 1.3. Irakaslea/ikaslea
2. astea	2. Botiken gora-beherak	1. Ez ibili jolasean (40') 2. Ez ulertzeko idatziak (45') 3. Sasoi betean (50') 4. Medikuak aginduta (40') 5. Egunean hiru bider (60')	2.1. Prospektua 2.4. Gaixoaren fitxa	2.3. Idatzizko produkzioa 2.5. Parte hartzea	2.3. Materiala/ikaslea (aukeran irakas.) 2.5. Ikaslea/ikaslea
3. astea	3. Bizkarreko minak jota	1. Bulegariaren patua (45') 2. Jarrera egokian (50') 3. Bizkarreko minak jota (55') 4. Mugitu gorputza! (55') 5. Espezialistarekin hizketan (45')	3.3. Web-orriak 3.4. Irudien testuak 3.6. Autoebaluazioa	3.3. Parte hartzea 3.4. Idatzizko produkzioa 3.6. Ikaslearen jarraipena	3.3. Ikaslea/ikaslea 3.4. Materiala/ikaslea (aukeran irakas.) 3.6. Materiala/ikaslea
4. astea	4. Diabetesa	1. Isilean edo ezkutuan (55') 2. Arnas berria (50') 3. Heziketa giltzarri (45') 4. Bai, baina (45') 5. Sabeleko neuropatia (45')	4.1. Koadroa osatu (diabetesa) 4.2. Tratamendua 4.3. Oinarrizko informazioa 4.5. Egin beharreko analisia.	4.1. Parte hartzea 4.2. Parte hartzea 4.3. Idatzizko produkzioa 4.5. Idatzizko produkzioa	4.1. Materiala/ikaslea 4.2. Ikaslea/ikaslea 4.3. Materiala/ikaslea (irakas. aukeran) 4.5. Irakaslea + materiala/ikaslea
5. astea	5. Pipiak jana	1. Zer da? (50') 2. Eta hi nor haiz, bada? (50') 3. 7 minutuko testa (50') 4. Hobe duzu... (45') 5. Adimen-urritasuna (50')	5.3. Testaren balorazioa 5.4. Berridazketak 5.6. Autoebaluazioa	5.3. Parte hartzea 5.4. Ikaslearen produkzioa 5.6. Ikaslearen jarraipena	5.3. Ikaslea/ikaslea 5.4. Irakaslea+ materiala/ikaslea 5.6. Materiala/ikaslea

Hamalau jarduera dira guztira irakasleak estu-estu aztertu eta kontrolatu behariko dituenak. Hamalau jarduera horiek propio aukeratu ditugu. Izan ere, horiek aztertuta ikastaro osoaren %75 neurtzeko modua baitago. Ebaluazio-mota desberdinak biltzen dituzte beren baitan jarduera horiek. Batzuek produkzioa aztertu eta hobetzeko aholkuak ematea dute xede; besteek, berriz, ikaslearen parte hartzea neurtzea; zenbaitek ikaslearen gabezien berri izatea.

Tutoreak oso argi eduki behar du uneoro zein den jarduera bakoitzaren helburua, zer-nolakoa jarduera horren ebaluazioaren xedea, feedbacka nolakoa izango den eta nork emango duen.

Tutorearen rola aztertzean, esan bezala, ikastaroaren arrakasta estu-estu lotuta dago irakasleak egingo duen dinamizazio-lanarekin. Eta dinamizazioaren zutabea ebaluazioa delakoan gaude. Irakasleak estimatu egiten du jarduera egin eta irakasleak haren gaineko feedbacka garaiz eta txukun ematea. Premia-premiazkoa du. Izan ere, bestela zuzenketa-orrian edo transkripzioan egindako lana alderatzeko aukera badu ere, biziki oniritzi-ko die irakasleak emandako aholku eta argibideei, eta eskaintako esteka eta ariketa osagarriei.

Gurean, bai esperimenez, bai ikastaro-aldian, irakasleak egindako ikastaroaren balorazioa neurri handi batean tutoreak ikastaroa dinamizatzeko moduaren arabera izan da, eta tutorearen balorazioa emandako feedbackaren baitakoa.

Autoebaluazioa ere ez dugu ahaztu. Ikastunitateen bukaeran irakasleak jarduera bat du egiteko, ikastunitate horretako autoebaluazioari hel diezaion. Hala ere, jarduera horiek bi eratakoak baino ez dira: aukera anitzeko galderak eta egia/gezurra erako ariketa. Gainera, eduki linguistikoetan dago jarria arreta. Egokiagoa iruditu zaigu horrela. Izan ere, hain ikastaro motzean gehitxo litzateke, gure ustez, ikas-estrategiei eta alderdi metakognitiboiei ere kasu egitea. Behin bukatu ondoren, liburuan bertan klik eginda, zuzenketa-orria bistaratu eta zer moduz moldatu den alderatzeko aukera izango du.

Dena dela, zenbaitetan autoebaluazioaren fitxa irakasleari bidali beharko dio, hark bere ikas-prozesuaren jarraipena egitean informazio gehiago izan dezan. Irakasleek, oro har, probetxugarritzat jo dituzte ikastunitate amaierako autoebaluazio-jarduera horiek. Beren esanetan, balio izan die ikastunitatean zehar egindakoa gogora ekarri eta birpasatzeko.

Amaierako ebaluazioa ere badago. Izan ere, batetik, irakasleak irakasleari ikastaroaren bukaeran hiruzpalau lerroren bidez adierazi beharko dio zer moduz moldatu den eta nola dabilen, eta, bestetik, administrazioak eska lezakeen ebaluazio-fitxa ere bete beharko du.

Tutoreak amaierako ebaluazioan irakasleak ikastaroan zehar izandako ikas-prozesua aztertu (ebaluazio jarraituan hamalau jardueretan nahikoa informazioa biltzeko modua badago) eta txosten txiki bat idatziko du irakaslearentzat. Bertan honako alderdi hauek jartzearekin nahikoa du: irakaslearen alde onak eta ikastaroan zehar egindako hobekuntza, irakaslearen parte hartzea, irakaslearen gabezia eta hutsune nagusiak, aurrera begira gabezia horiek konpontzeko aholkuak. Baina, gogoan izan balorazioa ezinbestean izango dela xumea, moduluak 30 ordu baino ez ditu-eta. Hala ere, gure irudipena da irakasleak beharrezkoa duela bere ikas-prozesuaren berri jakitea.

Zenbat eta informazio gehiago izan nork bere ikas-prozesuari buruz, orduan eta hobeto. Irakasleak eskertu egiten du. Jarraian duzue (.4) irakasle bati bidalitako amaierako ebaluazio bat, bere txikian erakusgarri:

Ederki aritu zara ikastaro osoan zehar, nahiz eta hasieran beldur izan. Funtsezko jarduera guztiak egin dituzu, beraz, zoriontzekoa da.

Hizkuntzaren aldetik oso testu txukunak eta argiak idatzi dituzu, lehendabizikoan ulertzen direnak. Egin dituzun akats apurrak ortografiarekin lotutakoak izan dira eta bakarren bat edo beste deklinabidearekin (orduen idazturauekin, kasu), esaten den bezala, idatzi dituzulako zenbaitetan. Eta lexiko konturen bat edo beste txukunago adierazi litekeena, medikuntzari dagokion hiztegi espezifikoa erabilia.

Horrek esan nahi du ez zaudela ohituta euskaraz irakurtzen. Beraz, ondo etorriko litzaizuke euskaraz irakurtzea, batez ere, osasunaren gaineko gaiak. Horretarako, egokiak dira CD-an duzun link-a (zientzia.net-ekoa) edo BERRIA egunkariak astearteetan osasunari buruz ateratzen dituen artikuluak edo ELHUYAR aldizkarikoak.

Ondorio-bidetik

Baina, guk ere jaso dugu feedbacka ikasleengandik, bai horixe. Etengabe, gainera. Ikastaroaren hasieran ikasleek egindako galderen bidez edo azaldutako zalantzen bidez, jardueraz jarduera sortu diren gorabeheretan ere erakutsi digute zerk funtzionatu duen ondo eta zerk ez, eta bestela propio diseinatutako ebaluazio-fitxak beteta: bakarren bat edo beste ikastaroan zehar ikasmaterialak eta jarduerak ebaluatzeakoak, bukaeran ikastaroaren alderdi guztiak neurtzeakoak...

Ikasleek, oro har, ondo baloratu dute ikastaroa, ez dago alde aipagarririk esperimentaziotik ikastaro aldira. Esperimentazioan feedback gehiago jaso genuen ikasmaterialen gainekoa, hala guk propio eskatuta, ondoren langaiak orraztu eta txukuntzeko. Baina, bestela bietan nahikoa ondo ebaluatu dute ikasleek ikastaroa bere osotasunean.

Ondoen zortzitik gorako puntuazioarekin honako alderdi hauek: tutoreak ikas-prozesua gidatzeko modua, ikasmaterialak, erabilitako baliabideak (glosategia eta esteka interesgarriak), ikaskideen parte hartzea... Eskasen, berriz, ordutegia, garaia, iraupena...

Sareko lana handiegia da, aurreikusitako ordu-kopurua gogoan. Gure susmoa ere halakoa zen. Susmoa baieztatu egin da. Ikasle gehienek ustez, agindutakoa (astean 4 ordu) baino denbora gehiago behar izan dute sareko lana egiteko. Ikasleek ingurune birtuala ezagutzeko erabilitako orduak ere batu egiten dituzte. Hala ere, aurrera begira, gure ustez, badago nola konpondu: ikastaroa sei astera ekarri.

Ikasmaterialak ederki baloratu dituzte. Batez ere, kontsultako lanarekin zerikusi zuzena duten jarduerak: tratamenduaren berri ematekoak, analisi bereziren bat egin behar izatera hura zertan den azaltzeakoak, gaixoari aholkua ematekoak...

Bestelako jarduerak ere ondo baloratu dituzte, medikuntzako lexiko berezia landu eta aberasteko balio izan dieten neurrian edo atzendutako hainbat hizkuntza forma gogora ekartzeko.

Irakasleak emandako feedbacka ere, jarraipena azken batean, oso ondo baloratu dute. Modu esplizituan eskertu egin dute askok eta askok, tutoreari propio bidalitako mezuan hainbatek, edo bestela ikastaroaren amaierako ikasleak betetako ebaluazio-fitxan, hortik atera kontuak.

Lehen ere aipatu dugu, baina berriz ere esan beharra daukagu: funtsezkoa da irakasleak ikaslearen jarraipen txukuna egin, feedbacka garaiz eman eta lana dinamizatzea, ikastaroak arrakasta izan dezan, edo, bestela esanda, ikastaroak porrot egin ez dezan. Hain da handia, On-line ari garela, ikaslea bakarrik ari dela sentitzeko arriskua!

Guk ere, tutore-lanetan ibili garenok, oso balorazio ona egin behar dugu. Izan ere, pozgarria izan da, ikasmaterialen eta moduluen diseinatzaile izan garen aldetik, ikustea moduluek, gorabehera txikiak alde batera utzita, funtzionatu egiten dutela, ikasleek ongi baloratzen dituztela, eta etekina ateratzen dietela.

Bestalde, guretzat ere oso aberasgarria izan da On-line tutore ibiltzea. Aukera polita izan dugu tutorearen zer-nolakoak arian-arian ikasten has-teko. Gu ere hasieran beldur ginen, ikasleak bezalaxe, baina bidea ibili-ibilian urratzen da, estropezu egin eta berriz altxatuta.